

BERTSOEN TXOKOA

AIHERRA 2017KO MAIATZAREN LEHENA

Doinua: Xalbadorren amodioa gauza trixtea

1

Aurtengo maitzaren lehenak/ereman gaitu hunara
Idiazabaleko Herria/hementxe bisitatzera
Kataraindarren Familiaren/gomita ohoratzera
Gotzon Garatek aipatzen zuen/Baserri hori ardura
Bere karnetatxoan zuela/idazten horko hizkera

2

Urteak jua ta urteak jin/maiatzaren lehen huntan
Taldetxo bat biltzen baigira/Gotzonen orroimenean
Haren izpiritu argia zen/sartu gure gogoetan
Bere irriñoa entzuten dugu/oraino ere beharrian
Maitasuna hitz hoi zuela/ardurenik ezpainetan

3

Egun berezi hau baitugu/lehen hautatua izan
Sekulakoz izanen da/orroimenen liburuan
Orduan ez ginakien/izaitia hixtorian
Anaiak ginela bi aldetan/erakustia jendetan
Gotzon-en ezpiritua badabil/beti gure gogoetan

4

Azken bertsu hau lagun maiteak/zuer guziera badoa
Hogeita bat garren urtea du/aurten elgartzen girela
Euskal-Herria ezagutzia zen/asmoz gure hel buria
Oraino ere xokoño batzu/galdetzen ezagutzia
Osagarriak lagunduz geroz/berriz arte agintzia

Andre Martinon

